Eroriaren logika

Juanra Madariaga

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2009 Juanra Madariaga
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2009ko maiatza
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

OREKAREN ESTRATEGIA

Hay que caer y no se puede elegir dónde.
Pero hay cierta forma del viento en los cabellos,
cierta pausa del golpe,
cierta esquina del brazo
que podemos torcer mientras caemos.

ROBERTO JUARROZ

IRRIBARREA ETA ZU

Norbaitek bizitzaren zuloa askatu eta
hustasunean puntu kromatikoa eraiki du.
Dena arrazoituz apurtu nahi ditut
patuaren alanbreak, borrokatu,
gero eta hutsalagoa izan arren.
Ez dut ezer ere egin baina
itxituraren barruko zerbaitek
krak egin duela barrundatu dut;
nire ordena okerra okerragotu da.
Honelako zerbaitek hustu ditu begietako errekak
eta kalamitatearen tiroak
erabat hondatu dizkit saihetsak.

Mahai gaineko argazkia begiratu dut:
biok agertzen gara.
Orain argazki horretan
bi gauza daude soberan.

OILAR ITOAK

Eguna urratuta zegoelarik ere
ez zebilen usorik zeruan,
ez panterarik etorbideetan.
Eguna urratuta zegoelarik ere
hutsik zeuden ospitaleko oheak,
jaioberriekin olgetan ziren otsoak.

Ez da antzigarrak erretako ezpainik ikusiko.
Ez da pozoiaren hotzikarak lehertutako begirik
ezkutatuko.
Ez du zure paralisiaren tragikomediak amaierarik
izango.
Ez du zure ahanzturaren ezpatak meniarik eskatuko.

Eguna urratuta zegoen
eta burdinazko argi batek
oilarrak ito zituen.

ZOMORROA

Sukaldeko harlauzetan zomorro bat
marraztu du pitzadura batek.
Portzelanaren ahuleziak, atearen presioak,
kanpoko hotsak, bonbonaren hurbiltasunak,
haizearen bisturiak, kolpeen higadurak,
ekarri dute irudia sukaldera.

Eta sukaldeko harlauzetan
zomorroa desagertzen denean,
presentziaren eklipserik ez,
inertziaren nekeak sortzen du
irudimenezko esperantza.

PLATH ETA BESTEAK

Sukaldeko leihoaz lekora
basoa imajinatzen du Plathek,
ileetako puntetan
leizeetatik ekarririko perlak Akhmatovak,
sueroaren poltsetan zure begietako
ur koloretsua darama Tsvietaievak,
igogailuetako bertikalaren erorikoan katigaturik
zaude,
negarrez ari da Anne Sexton.

Argia piztu behar duzu munduaren iluntasunean,
gerra aspaldian amaitu zen,
baso-denbora imajinatzeko aroa da orain.

LEHOI TALDE BAT

Kaleko ateak zabaldu ditudanean
begiak erre dizkit eguzkiak.
Eskuak gora altxatu, hodeiak josi betileetan.

Dena alferrik.

Nire itsutasunaz mintzatzen ari da
seigarren zentzumen bat. Eta goiza
lotan dagoen lehoi talde bat dela sumatzen dut.

DOBERMAN EGUNAK

Nora doa begiratzen dugunean
ikusten ez dugun beste guztia?
Horrela hasten dira egunak,
doberman kateetan loturik dituzun eskuekin,
marmoken eden elektrikoarekin.
Papera hartzen duzu eta odola darizu begietan ere,
kalea ez da paradisua, arnas underground bat
baizik.

Eta urratsek, igerilariaren atzean
urak ateratzen duen hotsaren antzo,
norabide okerra irakasten dizute isilik.
Parkeetako atsoengan asmatzen dituzu iragan
krudelak,
erroldarako zenbakiak, partiduetako pastel zatiak,
baina begiratzen diezunean
nora doa ikusten ez duzun beste guztia?

BERTOLT BRECHT (I)

Josef Breitenbachen argazkian
Bertolt Brechten begiak
aurpegi estu bati josiak.
Baina honek ez dauka garrantzirik.
Max Ernst edo Aristide Maillol eskultorea ere
izan ziren bere negatiboetako aktore,
Brechti egindako argazkia da
beste guztien gainetik deigarriena.
Ile moztu berria du dramaturgoak,
ziega batetik irtenda bezala,
torturatuaren behako galduarekin.
Beroki zaharkitu marradunak
pobreziaz bernizatzen du irudia.
Beltzegia da potreta,
bigarren mundu gerra piztear zegoen.

BERTOLT BRECHT (II)

Begiratuaren galera,
begietako dignitatea,
begiradaren amnistia,
begi beltz oker garbiak,
begiratu, begiratu
Bertolt Brecht.

KORROSIOA

Gaitz korrosiboa da gomuta eta
nekearen kutsuak zauritzen du.
Kamuflajerako maskarak salatu zaitu,
ez zara behin maite izan ninduena.
Bizitzatik zer espero dudan galdezka hasi zara.

Lorpen galkorrak ageriko dira inoiz
ur larregiz eginiko akuarela distortsionatuan.
Banitatearen lainotan, frakasoaren erakusketan,
pieza poliformeak, eskulturak, nahikoa dira
inaugurazioa hedabideen aurrean egiteko.

Markoztaturik saltzen ditugu gure esperantzak.

ZORIONA ETA ZOZOAK

Zorionak ez digu itzala egiten,
beti jazartzen gaitu zapuztearen enigmak.
Bizitzak oparitzen dituen landa berdeak
siku dira negurik gorrienean.

Abiatu arren, gure urratsak geldoak dira,
sinpleak dira, ez gaituzte inora hurbiltzen.
Abiatu arren, denak kalmara egin du,
desesperantzaren hatsa sumatzen da.

Zorionak ez digu itzala egiten
eta zozoak izutu ditu.

EKINTZA

Isiltasunak ez digu
loak hartzen utzi.
Isiltasunak ez digu
berba egiten utzi.
Isiltasunak ez digu
aditzen utzi.
Isiltasunak edozein ekintza
laidotzen du.

EROSI MAPA

Bazterretako mapa geografikoa
bidaia agentzia batean eros daiteke,
tour ederra proposatuko dute
desertu periferiakoetan barrena.
Bakardadea, nork berea batu bideari ekiteko.
Hegoaldera luzaturiko begirada galduak,
arrotzak, okerrak, absurdoak, akastunak,
denak dira horretan monumentu nazionalak.

Muturretako demonioek
erreka magalak betetzen dituzte,
txoriak joanak dira toki honetatik, British Airways,
alfonbra koipetuak baino ez ditugu zapalduko,
deslekuetako hizkuntza berri eta
paraplegikoa darabilte biztanleek,
arnasa hartzeko aparatuak ere
zaharregiak dira funtzionamenduan.

Atrakzioa egongo da nonahi.
Igo gure tranbiara eta ez duzue ordainduko
hemisferio honetako bitakorako poemak

irakurtzen ez badituzue.
Barneratuko zaizkizuen zantzuen artean
lirismo groteskoa, distortsioa, aseezintasuna, desoreka,
zirriborroaren erreinua, poesiaren tentsioa aurki daitezke.
Salgai daude orratzez zeharkaturiko hasperen bildumak.

JAINKOAREN AUSENTZIA

Ordua edo antzeko zerbait galdetu dio
beltz erraldoiak atsoari.
Erantzuna gustukoa ez balu bezalako
keinuak egin ditu kankailuak,
eskuak airean hip-hop dantzan.
Atsoak aurrera egin nahi du
bere gurditxo astunetik tiraka.
Beltzak makurtzeko keinua egin duenean
sekulako ostikoa eman dio bularrean.
(Sony kamerak ez du dardararik egiten).
Atsoa ez da zorura jausi.
Beste kolpe bat jo dio buru aldean.
(Laborriaren absurdoa hedatzen ari da
ikusle voyeurraren zuzentasunean).
Orain bai, atsoak hautsa mamurtzen du.
Poltsatik tiraka hasi da putakumea,
atsoaren erresistentzia ahulak
artelan perbertsoa dirudi.
Joan baino lehen burua zapaldu dio.
(Sony kamerak dena grabatu du).

Atsoa txikiegia da lurrean,
daborduko neskatxo baten
beroki abandonatua ematen du.
Jainkoaren ausentziak
hegoak zabaldu ditu bazterrean.

JEAN COCTEAU

Fontainebleau hirian hil zen
ni jaio eta urte betera.
Picasso, Stravinski,
Apollinaire eta Diaghilev
ziren bere lagunik anaienak.
Talentu poliformea zeukan,
moda literario guztiak
islatzeko kapazitatea erakutsiz.
Edozer idazteko gai zen.
Les enfants terribles izan zen
bere nobelarik arrakastatsuena.
Marrazkigile, pintore, pelikula zuzendari,
errealismo eta surrealismo
bitarte horretan murgildurik bizi zen.

Begirada galdua haratago botatzen duen
gizona begitandu zait, lausoegia,
inon korapilatzen ez dena.
Agian horrexegatik erabili zituen eskuak
artilezko eskularrutan gordeak zeramatzanak,

bere lepoaren buelta neurtzeko.
Bizitza ahularen benetako neurria hartu nahian, heriotzaren distantzia laburbiltzeko.

ARRAINEN ZIRKUNFERENTZIAK

Hau ere pasako da, esan nuen nire artean.
Hau ez da nire esklusibitatea.
Arrainak, agian legatzak, izotz gainean etzanda,
elkarri begira, oroitzapen izpirik ez burmuinean,
begiak ixteke, luzaturik lingirdatsu,
ahoa zeharka zabalik hatsari eutsi barik,
zirkunferentziak begi hildakoetan.

Hau ere pasako da, esan nuen nire artean.
Hau ez da nire esklusibitatea.
Izakiek, agian ezezagunak, biluzik,
elkarri begira, ezer esan barik,
moteleko ohean egiten dute,
aspaldiko amuari loturik
apokalipsiaren dantzariek.

DEFENTSARIK GABE

Jasanezin bilakatzen zaizu muga bat
gutxien espero duzunean.
Etxeko ateak ez du betiko soinurik ateratzen,
okaran batek lurra kolpatzean txu egiten du.

Hotz dago etxeko muga.
Arin zeharkatzen da punta batetik bestera
eta, bitarteka, etxean gal zaitezkeen
sentsazioa hartzen duzu.

Kanpora begiratzen duten leihoak
paisaiaren disparoarekin itsutu dira.
Gortinek nekez eusten diote bertikaltasunari.
Hezetasunak pintura irintzen du zokoetan.

Komuneko dutxak isurkin arrosa
aireratzen du eztul intermitentearekin.
Telebistak begiak itxi ditu plasmaz bestaldean.
Sukaldeko limoiek ez dute oxidazioan sinesten.

Bertako aulki batean jesartzen zarenean,
azulejo guztiak begira dituzula sentitzen duzu.
Hortxe, defentsarik gabe,
eroriaren mugak zeharkatu dituzula sinesten hasia
zara.

HEREDATZEN DIREN GAUZAK

Alabak lo egitean
aurpegia hartzen du
bere eskutxo biekin.
Ez dakit babesteko edo
Munchen margolanean bezala
izua adierazteko den.

METABOLISMOAREN PASIBITATEA

Epilepsiaren espasmoak etengabe
jotzen du nire bihotza.
Arritmiaren dantza
entseatu gabekoak,
gorputz osoa.

Klabikordio batek
sinfonia ironikoa
jotzen du biriketan,
asko deliberatuko genuke
arnas faltsua deszifratzen.

Mikrokosmos ulergaitzak
behaztopatzen dira
zuntz odolduetatik,
patenterik gabe abiatzen dira
eginkizunetara.

Deitoragarria da
kardiogramaren pasibitatea.
Itsasneska bat,
kurloia asfaltoan botata,
ematen du bizitzak.

OREKAREN ESTRATEGIA

Panikoaren parapetoa, ezkutaria
izan behar duzu, erresistentzia.
Eta ez lirudike paradoxa
modu berean existentzia baduzu.
Dena idatz lezake horrek, eta beste horrek,
eta idazteari utziko zenioke modu berean,
zozoak lepoan pausatzen zaizkizun bezala,
bakteriei ostatu ematen diezun bezala.

Hamabi aldiz pentsatu gabe,
hipokrisiarik gabe, distantzia ukatu gabe.
Bidea nahi duzu, besterik ez,
ikusezina ikusgarri bihurtzeko,
esan behar ez direnak ez idazteko.
Galeraren bide bat, orekaren estrategia,
panikoaren kontrako promesa.
Panikoa, aditzen?

INSHA-ALLAH

Herri batek grabitatea galdu zuen.
Maldan gora abiatu ziren errekak,
zakur alderraiak harriek zanpaturik hil ziren.

Mendi itzelek dardara egin zuten
ezkerretik eskumara, umeen belaunek bezala,
grabitate ezak jotako ume deshidratatuak bezala.

Ez zuten ura orkatiletan sentituko.
Bihurgunez josi ziren bideak,
zuzentasuna oroimen publiko bilakatu zen.

Eta zein ederra zen lehen lur hura,
Zein ederra Pakistan, Nanga Parbat,
zein ederra Hushe eta Chilas.

Ondorengoen jabego pribatua basaz bete zen,
kartografiak transformatu, umeen ametsak
deuseztatu,
Elurrak loreak ekarriko ahal ditu, Insha-allah!

FRAKASOA

Metroa arinegi doa, arnas batean doa,
itxarote-gela batean ez bezala.
Bagoiek alboetara jotzen dute gogor.

Ezin dituzu poemaren gainean begiak finkatu.
Hitzak nahasten zaizkizu irakurtzean,
adierazpen libreko zentzumena kateatu.

corazón, con razón
instrucción, destrucción
existencia, resistencia

Eta azkenean, frakasoaren zeremoniarekin,
letras hitza irakurri ordez
lastre irakurri duzu.

MEMORIA

Memoria ez da talko usaina besterik,
ahosabaian pegaturik duzun ostia,
hagin arteko haragi puska,
ukondoetako psoriasia.
Memoria ez da begiratu desorientatua besterik,
polioak jotako belaun desartikulatua,
perbertsioaren muga bigunak,
armada erabat suntsitua.
Memoria ez da maitasun erailketa besterik,
energia iturri agortezina.
elektroshock baten efektu optikoa,
zure buruarekiko fedea.

MAILUKI TXIKIAK

Mailuki txikiak jaio direla konturatu naiz.
Ez da tiraka ibiltzeko garaia,
gatzak ixten ditu zure zauriak.

Miroren koadroetan bakearen utopia
eta han titanioa eraiki dute *Basque*
edertasuna gurutziltzatzeko.

Errekatik hurbil iragan zara, hurbilegi, ia
gomutak leporaino jaurtiki dizkizu soka
metalezkoak.
Ez duzu pumaren ninietara begiratu behar,
heriotza ez bada, eta hala balitz, damutu Pasternak.

Ikasitakoarekin bat egiteko giltza bakarra.
Ustelaren jantzia zuri dezakeen maluta.
Engainuaren arrotz melodramatikoa.
Iraganaren aizkorakada josi dezakeen haria.

Ortu santuraino joan naiz damutzera
eta zure hilobiaren oinetan
mailuki txikiak jaio direla konturatu naiz.

KITATZEKO TENOREA

Tigre guztien kolorea du zeruak,
gezurra da hil behar dugulako hori,
heriotza atari huts bat da.

Hirietako giltzak galdu zaizkizula diozu
memoria galdu izan bazenu bezala,
eta aterik, leihorik gabe ez dago bilatzerik.

Negutik dator gu barruan gauzkan trena
eta ezin da azaldu bere hustasuna.
Ez goaz hiria zeharkatzen duen automobilean.

Ez gara, zerbait arraroa hazi zaigu barruan.
Amai dezagun, zainak moztuko ditugu.
Zeuk dauzkazu aizto guztiak.

DENBORAREN KOSMETIKA

Lo poco que he vivido
me ha hecho perder demasiado tiempo.
Jorge Boccanera

DENBORAREN ZABUA

Bera zabua bultzatzen,
umea zirkulu erdiak deskribatzen,
grabitateari trufaka,
bertigoaren ferekan,
eta kateak nekatuta.

Hori da denbora,
urruna eta hurbila,
zabuaren pendulua,
umearen barre algarak eta
grabitatearen eramana,
nora daraman ez dakien grabitatea.

HITZEK AUSENTZIA ERATZEN DUTE

Bizitzeko joera iluna.
Zu gabe besoetan hartzen dut nire burua.
Esaten ez dudan poema, merezi ez dudan
poema.

Aingeru zarpaila deitzen zidaten.
Haizeak hostoaren azken keinua darama.
Begiratzera, esatera ausartzen banaiz...

Egunero zure memorian hiltzen diren
substantzien artera eraman nazazu.
Idatzi behar zen zertakorik, noranzkorik gabe.

Isiltasuna agindua eta tentazioa da.
Zu gabe eguzkia hildako abandonatu
baten moduan jausten da han.

Betiko egarria.
Hitzek ausentzia eratzen dute.
Hitz hauek guztiak Alejandrarenak dira.
Alejandra ez dago.

BISITA GIDATUAK

Mundua txikiagotuko duzu,
dena ezin baituzu deszifratu.

Irudikapen kongenitoak leherraraziko du
exageratzeko duzun aztura.

Dena gezurraren museoan sartuko duzu.
Bisita gidatuak daude.

HIRUROGEITA BOST

Hirurogeita bost
aizkorakada
zuhaitza botatzeko.
        Atseden hartzean
        barruko eraztunak
        zenbatu ditu
        astiro haztatuz.
Esana zioten
zirkulu bakoitza
landarearen urtea dela.
        Hogeita hamabi
        okertu ez bada.
        Bereak bezala.
        Bizitza laburra.
Hirurogeita bost
aizkorakadaz
jo du lurra.

IDENTIFIKAZIOAK

Basoko adarretan haizea
Ur-latsetako arnasa joankoia
Autopistetako narrastien orroen urruna
Hirietako taupaden bolumena
Etxeko iturrietako zotina
Izozkailuaren dardara nekrologikoa
Egur zaharretako min deserosoak
Entxufe horren kalanbre espasmodikoa
Lanpararen itotzeko gogoa
Atearen artrosi degeneratiboa
Itoginen jario mingarria
Bainuontzian plat-plat egiten duten
eskuturretik jausiriko odol tantak

DESPARADISUA

Houdinik ez luke hain ondo egingo.
Zenidan amodio urratuaren azken anpulua
desagerrarazi duzu truku sinpleena erabiliz.

Aro txarretarako preparatzen nenbilen.
Beti dira hondarretan aldatzen ez diren gauzak,
pertsonak.
Iragana gogoratuz ikasten da zer den denbora.

Ahanzturaren piztiek aterako dituzte harpeak,
zornea zer den azalduko dute elizetan,
aberririk gabeko gizonek ihes egingo dute.

Bibliak topatuko dira toki askotan,
zerua begiratzeko moduko poemak idatziko dira,
zabor-biltzaileek ateak ere eramango dituzte.

Ez da hain ezberdina izango desparadisua.
Esperantzari desolazio abizena jarriko diote,
zortzi kilometrora adituko da tristeziaren lehen
detonazioa.

GAUZA GUTXI

Kaioletako zeruak
itsasoetako botilen bilduma
luma erorien erreskateak
urre meategiko iluna
eskuetako defektu maitagarriak
museotako koloreak begietan
erromesen bideak zure hatsetan
izarren eztandak
bizitza bere delirioan

Mundua eraldatzeko
gauza gutxi behar da

Udazkeneko hosto batek
lurreraino deskribatzen dituen
eklosio geometrikoak
argiaren multiplikazioa
isiltasunaren dentsitatea
errealitate perfektu baten hipotesia
edertasunaren transmisiorako proposamena
bizitzaren iman absurdoa
bizitza bere delirioan

AZKEN ARGIA

Gobernamenduzkoa izateak
listua irentsarazten dizu.
Magnitude defizitarioa da zentzua,
gero eta eskasagoa.
Birikak betetzen dituzu
iodo koloreari aurre egiteko,
balazta zapaldu baino lehen.
Palanka guztiei eragin ostean
bide bazterretan lotuko duzu kotxea
eguzkiaren azken mezuari
erreparatu nahi diozulako.
Motorra itoko duzu listua
eztarri marrantatutik labaintzen dela.
Panasonic bateko ikuspegia duzu hor.
Eta azken argiak gurutzeak egiten ditu
zure azalean, azidoa balitz bezala.

HELIZEAK

Haragi xehatua eskatu zuen
abuztua Europan pasatuko zuela deliberatutakoan.

Zilarrezko belakiak xurgatzen zuen odola airean,
umeak ferekatuko dituen esku garbiak egingo du.

Alemaniako aurrietan arbendolak agertuko dituzte
telebistako bebece kate pribatuan afaldu bitartean.

Animalia nahasturik iritsi zen torturara.
Tragediari adikzioa, esperpentoari errezoka.

Hilero inpazientzia, gaur egun mina baretzeko
elektrodomestikoa da heriotza.

Haragi xehatua eskatu zuen eta ez zen kargutu
makinak hiri gaineko bonbarderoa ematen zuela.

HATS BAT

Eta agian musu baten saiatzean,
neurriak hartzen dizkiozu heriotzari,
azkenak izan ahal baitira biak.

Zure musua.
Nire heriotza.

Edota erroi grisa ematen duen goiza,
ohiko kafea hartzetik itzulirik
bizitzaren birika pisutsua sentitzen duzu.

Zure musua.
Nire heriotza.

Eta orduan musu baten saiatzea behar duzu,
ustekabean, hats bat bezalakoa,
ufada ulertezina, desio bolborazkoa.

Zure musua.
Nire heriotza.

HEROIAREN BORONDATEA

Begiak zabaltzearen zeremonia, ispiluaren amnesia estetikoa, gosaritarako elikagaien hustuketa, armairuaren bronkitisa, arroparen sitsa, ate aurreko geldiunea, geroko paisaiaren monotonia, fosilizazioa, giltzen amarrua, itxiera baten oroimena. Kaleko farolen begirada, metroko bakardadeen inperioa, urratsen koreografia, itsasnesken aurpegiak bagoi-pezeretan,

Ez-denbora, ez-espazioa, giza-indiferentzia, autoen makinaria hotza, irrati eta ke toxikoen safari amaiezina, lanorduetako krispazioa, egunerokotasun bezpera gabea, diosalen bilduma, identitatearen aplikazio exkaxak, atsedenaren prekarietatea, muga eta espazioen irla, otorduko prestakuntza biokimikoa, gosearen berediktoa,

Arratsaldearen lehen ordu konkaboak, zeruari buelta eta buelta, eginkizun xume eta zentzubakoen zerrendatzea, ogiak, egiak. Nekeari erresistentzia, western zaharrak, tvko apopilo nardagarriak, tragediaren so-

bredosia, banitateen eskaparateak, hezurduraren egokitze ezina, diarioaren gaueko grabazioa, hitzen beharra eta sinbiosia. Eta azkenean, arnasa hartu, lasai biluztu, zure azken unea balitz bezala.

Ezkutatzeko, dena izkiriatu.

BIHURTU GARENA

Hiriko argiek otsoen niniak ematen dute.
Hotzak urruntasuna dakar,
ez garena, izan gintezkeena eta
beldurrak bihurtu gintuena.

Laringea gorriago izaten da aro honetan,
grisago toraxa, beltzago listua.
Kristo ez zen neguan jaio eta
ez zen udaberrian hil.

Neguak eliza handi bat irudikatzen du.
Gizakiaren galbideko gurutzeak,
hor daude, eszeptizismoak higaturik,
haize laruarekin azantza konposatzen.

Arnas pasiboa izango dugu meditazioetan
eta ez dugu jakingo zer ginen,
zer garen, nora goazen zorabio honetan
neguari antizipatzen ez bagatzaizkio.

BILDUMAZALEEN EMOZIOAK

Isiltzeko dignitatea,
pergamuen itotze geldoa,
galdutako efektu mingarria,
zainetako zurrunbilo gaixoa,
lurretako maizterren ametsak,
bildumazaleen emozioak.

Zuk ez duzula ulertzen diozu
baina lepoa bustitzen zaizula
itsasoaz egingo duzu kontu.
Ur azpian, argirantz eramango zaituen
amuari egingo diozu haginka.
Min horrek betiko salbatuko zaitu.

Sentituko duzu orduan
beti egon zarela bizirik,
deformidadearen sortzaile zarela,
marka horiek ez direla kentzen,
horrek bereizten zaitu orain
bildumazaleen emozioetatik.

KATE GORRIA

Ate ondoan nago
Kanpotik etorri naiz

Palmondoari jaramon egin diot
Adar luzeegiak ditu jite tristeegian

Zerra harturik hezurrak moztu dizkiot
Zuntz berdeetatik ez da deus atera

Tanta gorriak ikusi ditut hosto plastikoetan
Hostoek ebaki sakonak egin dizkidate azalean

Odol arrastoak kate gorriz batzen nau
palmondoaren agoniarekin

Kanpotik etorri naiz
Ate ondoan nago

BIZITZA KONDENTSATUA

Urrunerako pasabidea da ohea
memoriaren aingeruek
irudiz betetzen dizutena.
Zuk nahi ez dituzun arren
izarak korapilatzen daude.

Zerbaitek gogorarazten dizu,
hiltzera doanak bizitza kondentsatua
ikusten duela segundo batean,
pelikula hasi eta buka
ikusi beharko duzula.

Espazio beltzean kargutu zara
bizitza ez dela hain luzea,
egunsentia baino lehen
ikusita edukiko dituzula
eszenarik txarrenak.

Oheak gas kamara baten
traza hartzen du gero,
apokalipsiaren jainkoari
barkamena eskatzeko estrategiak
pentsatzen dituzun bitartean.

Arnas faltarik sakonena
sentitzen hasi orduko
eldarnioari trufa egiteko
auzokoaren irratia adituko duzu,
antzinako musika doinuz.

AIZTO JAURTITZAILEAK

Musak itotako artista
esoterikoak ginateke,
baina desilusioaren estetikan
bota dugu aingura,
marea gora dator
eta jainkoa ere bainatzera doa.

DISNEY WORLD

Giltza etxe barruan, galdurik.
Denborak, tokiak beste dimentsio bat hartzen du.
ukabilkada zehatza zure segurtasunean.

Ez zara inor, beste kalekume bat noraezean.
Kaleak lerroak dira, urrunegi daude posibilitateak,
ilunak desolazioaren substantziara narama.

Baina probidentziak aurkitzen dizu giltza.
Disney Worlden bezala,
botoi elektronikoari sakatu eta argiak piztu dira.

IRAGANA

Nire iragana leiho bat da,
kiribildurik dagoen koloreetako sugea,
kaxa karratua, glaziarretako harri arrosa,
hondalezeetatik igotako burbuila,
esku bat, aieruz,
zeruertz metalikoa, planoa,
eraztun baten forma,
orratz baten beldurra.

Nire iragana
gomutatzen dudan
apurrak osatzen du.

Ahoetan diren izenak,
espazio iragangaitza,
odolbilduaren koloreko masusta,
biluztasunaren instantea,
asfaltoaren metrika,
usu ikusitako argazki batzuk,
gertatu ez zena.

Nire iragana
gomutatzen dudan
apurrak osatzen du.

PASABIDE HAU

Ez ditut meteorologiaren misterioak ezagutzen,
baina arratsaldearen kimikak eragiten dit.

Ez dut astronomiaren gako unibertsala inoiz entelegatu,
baina izarren betikotasunak babesten nau.

Ez dut medizinaren garapen eta praktikaz ezer jakin nahi,
baina odolak plaketak daramatza kanpora eten gabe.

Ez dut erlijioa asumitu,
baina pasabide hau estua eta luzea da.

JUSTIFIKAZIOA

Arinegi doaz distortsioa, jendea,
bizitzaren paradigma,
denborarekiko kontratua,
bakardadearen uhina,
ametsen egituraketa.

Arinegi doaz adikzio hilkorrak, arnasa,
hipokriten balantzea,
une gozoen inbentariuma,
derrotaren lausoa,
bihotzaren pendulua.

Balea...
balea itsaso zabalean,
ez balea arpoitu bat.

SEGADA GELDIEZINA

Bizitzak
penitentziarako abilidadeak
luzatzen dizkigu

Gerora
gutxiesten ditugun galerak
alferrikako onurak

Bizitzak
ukaziorako kondenak
luzatzen dizkigu

Hala ere
esperantzak antolaturiko segada
geldiezina da

SAGARRONDOA

Erreka hemen zabaltzen da, sagarrondoaren begiradapean.
Ura lasaitzen da, arnasa hartzen du,
zeruaren isla bereganatu, itzal guztiak irentsi.
Inguruko mendiek ere behera egin dute,
lehoinabar batek adarretatik behera bezala.
Begiek hau guztia harrapatzen dute kliskatzean,
betiereko espazioa luzatu da margolan batean.

Orain sagarra hartuko du, ez da ezer ere aldatuko.
Munduak ez du atzazal bat ere galduko,
ez da soinuaren abiadura motelduko,
ez dira irriaren hotzikarak sendatuko,
ez da frakasoaren esperpentoa eztituko,
ez da elur maluten azpiegitura sendoa deuseztatuko,
eta ez da minaren aingura ugertuko.

Dena da bat, dena sagarrondoaren begiradapean.

KALTEGABEKO KEINUAK

Tiraderetako ahoetan zure hautsak deskubritzen
dituzu,
harengandik etorritakoan izan zinenaren hautsak.
Kantoi desilusionatuak,
besarkada ukatuak,
erritu mingarriak,
atzera begiratzeko izudura,
bere ahoaren sarraila.

Tiraderetako ahoetan zure iraganaren arriskua
sumatu duzu,
harengandik bueltatutakoan izan zinenaren
arriskua.
Bizitzarako formula,
elkarri kendutako arnasa,
menbriloaren kolorea ilunabarrean,
urrunera abiatzeko bekatua,
oroimen deslotuak.

Tiraderetako ahoetan habia zaharra topatu duzu,
harengandik itzulitakoan abandonatu zenuen habia.

Bere ezpain sorgorrak,
atalondoko seinaleak,
askearen ilusio berriak,
borborka anpuluak,
ahanzturaren alokairua.

EGURALDI GIZONA

A. E.-ri

Ipar haizeak mendebaldeko ukitua hartuko du
eta nire bularraren kontra lehertuko da.
Barrualdean izotza izango da nagusi betazaletan,
kontuz ibili errepideetan eta gogoratu
kateak izoztuta dauzkadala nire eztarrian.
Arratsalde parterako aldaketa nabaria izango da
eta dilatazioa agerikoa zure biriketan.
Pneumoniak hego haizea harrotuko du
Gaztelako sikatean.
Meteosat-en sekuentziak agertu bezala,
antizikloiaren isobara guztiak
jaurtikiko dira nire jugularrerantz.
Euria egiteko arrisku nabarmena
izango da tinpanoetan,
-24 gradu arterietan.
Ilargia beluago agertuko da leihoetan,
sindromeak jota, etsita.
Zure kardiopatiak ez du zerikusirik
artizar goiztiarrarekin.

Bihar ekaitza dakar. Gure bizitzan bezala.
Ekaitz honek dena ilunduko du hemorragian
eta nire begiek ez dituzte zureak ikusiko.
Marea gora arrats-beherako zazpietan izango da,
ez gara ordu horretan berriz geratuko.
Kostaldean itsaskirria izango da,
kaio guztiak itota agertuko dira bihar zure izaretan.
Bi metroko malkoak altxaraziko dizkit zure
heriotzak.

TEKTONIKA

Sekulako atzaparrek
eginiko zauri sakonekin
gautzen dira mendiak.
Hondartzako hodeiak zure begietan.
Arkitektura ikusgaitza, burmuinak azalean,
pitzatutako lorategiak.
Haizeak arrastaka daramatza hodeiak.
Airea kristalezko itsasoa, eta atzean
dagoen hori guztia eguzkia da,
adarrik gabeko planeta.

Zurbiltasunaren diagnostikoa
egingo du arrastiriak.
Izotzezko zirkuluak, gezurrezko zaratak.
Liburuak ere hezeak okerturik daude.
Arnasa eta zure ezpain geldiak.
Dena berriz has daiteke.
Zabaltzeko atea da hortz-muga,
desolaziorako aierua, itzulerako kartografia,
galeraren bozetoa.
Hain urrun dena.

LIMOIEN AROA

You make
my heart
feel warm,
I lay my head on your chest
and feel free,
filling
what is empty,
emptying
what is full,
filling what is
empty, emptying
what is full.

JOHN GIORNO

KOORDENADAK

Berriz hasi,
zauriak zenbatu,
galerak izendatu,
ez desbideratu begirada
edo are gehiago
lehen aldian bezala begiratu,
zer zaren jabeturik,
biguntasuna zer den
analizatu, aldarrikatu.

Trapezioak hustu,
igogailuak lurreratu,
menda oro kendu,
zuhaitz ustelduak erauzi,
bideak garbitu,
neonezko argiak itzali,
atmosfera hau deskonektatu,
amaiera ez itxaron,
oztopoak leherrarazi.

Bertigoaz gozatu,
orratzak desagerrarazi,
biluztasuna deskribatu,
estriknina debekatu,
desterrua urrundu,
katuak ferekatu,
begi berdeak xurgatu,
eskutik heldu,
gero ere bai.

EZ DA KABITZEN

Hutsik dago etxea,
inoiz ez bezala,
zabalik leihoak,
udagoieneko hatsa,
hosto erorien logika,
eta mila erantzun.

Hutsik dago etxea,
inoiz ez bezala,
zabalik ateak,
neguko jaidura
eta ez da
inperfekzioa kabitzen.

ENERGIA-ITURRIA

Pitzadura beltz bat saltatzean
badakizue zer iragaten den burutik?

Erlauntza da pentsamendua
eta erleak milaka burutazio.

Sartu eta irten egiten da denbora:
eta energia-iturri ikaragarria naiz.

DENA ERRAZA ZEN GARAIAN

Ledesmako barberuarengana
eramaten ninduten
zazpi-zortzi urterekin.
Portzelanazko aulkiak ziren,
zuloak jesarlekuan,
larruzko buru-azpikoa,
izerdia eskuetan
irudipen guztian izerdia.

Dena erraza zen garaian

Ilea moztu orduko
ezkutatzen ziren eskuak,
labanarekin aieruz
hil nintzakeela pentsatuz
azalean pausatu eta
laztasunaren zarata, mina.
Izerdia eskuetan
irudipen guztian izerdia.

Dena erraza zen garaian

GOMUTA BATZUK

Urkatuaren soka dira gomuta batzuk
adaxken mina giharretan bezala sentitzen duenean,
desertizazio masiboa begietan jazotzen denean,
martiritza eginkorra eskuetan azaltzen zaionean,
anputazio errefusaezina ezpainetara heltzen denean.

Itoduraren artikulazio moldea dira gomuta batzuk,
odolaren mareak eta arnasaren brodadurak,
ikusitakoaren patetismoa eta izandakoaren bekatua,
tristura neurriduna eta fedearen neurrigabekeria,
neurosi soziala eta patuaren hitzaurrea.

SATELITEAK

Geldiarazi ditut nire hegoak,
edukiko ez banitu bezala nabil.

Argiak usoz josiriko parkean
infernurako bidea markatzen dit.

Damuaren maldizioak sugeak kiribildu ditu.
Elurra hutsik dagoela ematen du.

Teilatu honetatik begira hegoak bustirik
gogora ekarri zaitut

sateliteak lurrarekin egiten duen bezala,
orbita jakinean.

EMAN DEZAGUN

Eman dezagun horizontaltasuna
eta elementu hotzen bihozgabekeria.

Eman dezagun intentsitatea
eta forma askoren presentzia.

Eman dezagun zure bolumena
eta musu baten itzulera.

Eman dezagun malkoen deia
eta asperduraren pisua.

Eman dezagun beldurraren jainkotzea
eta durduzaren erakargarritasuna.

Eman dezagun nire barkamen sakona
eta laztasunaren higuina.

Eman dezagun zurekiko pasioa
eta biluztasunaren desertua.

Eman dezagun hemen nagoela
eta orratz guztiak bizirik direla.

Eman dezagun hemen gaudela
eta dena hastera doala.

URRUN

Ehun mila harriren artean ibili naiz,
harriak kolpeka, desorekatuz.

Nire txiza zuria da, hatsaren kolorea du,
ezin da horia izan, zuria behar du.

Erretzen dit eztarriak ordu berean,
arnas hotzaren errezelpean, pazientziarekin.

Horma izotzezkora hurbildu naiz, ukitu dut,
bakardadearen gardentasuna zaitut.

Aldizka desiratzen zaitut
ehun mila harriren artean nabilela.

PUJA

Izotzaren zinkurina gauean,
dena zartatze selektiboa balitz bezala.
Berotasun bila krisalida bat ematen dut.
Txori saldoak ere asfixiaren erritmoan.

Chang edaten dut, arrozaren ardoa,
goizeko bederatzietan, puja batean.
Erretako belar txikien keak bedeinkatu gaitu,
gure arima deserrotu da.

Maluta bakoitzak zerbait adierazten du,
eta orain intentsuagoa da.
Euren ahotsak zuritzen ditu sukarrak,
minak, distantziak ere.

Utzidazu adierazten
nola zuritzen dituen
ausentziak.

HERRENAREN AHALEGINA

Bada izotz arrakalatua eta bada
idi bihotzaren usain arina.
Bada fereka ahaztua eta tuneletik datorren
zarata ezezaguna.

Bada herrenaren ahalegina eta
euriak mindutako kristala.
Bada ekaitzaren indeterminazioa eta
zure ezpainen klabea.

Bada hizki preteritoen aztarna eta eskuen jolasa.
Bada dimentsioetako nekea eta
argiaren plagio primitiboa.

Bada nire bihotzaren amnesia eta
zure bihotzaren amnesia.
Bada ordu askoren faltsifikazioa eta
alanbrearen pasibitatea.

Bada katalogoen noraeza eta adituen norabidea.

Bada zure mihiaren substantzia eta azalaren
materia.

Bada musuen gardentasuna eta erroien antsietatea.
Bada zure amodioaren esklusiba eta
dardara guztien sorburua.

Bada zerbait, ohartu gabe, samurtasunez.
Bada sortu eta soraio biziko dugun gomuta.

SAGARRAK

Sagar erdibitua gara gu.
Ezinezkoa berriz bat egitea.
Tematuta ere sagar erdibitua
alferrikalduko litzateke.

Horrexegatik sagarrekin
kenketak eta kenketak
egiten ari den
ume txikia naiz.

ZU ETA NI LURRIKARAREN AURREAN

Arrotz baten eztula
albumetatik eroritako argazkiak
oroimen baten digestioa
ur-putzuan jausi denaren zarata
hitz guztiak jan dituen intsektua
zure musuak gordetzen ditudan formola
gure bizitza jaten duen jainkoa
almendrak oskolean utzi duen zuloa
adjektibazio larregiko behakoa
adjektibaziorik onartzen ez duen mina
bizitzan galtzen diren kontuak
heriotzak darabiltzan estrategia sinpleak
zu eta ni lurrikararen aurrean
ausentzia guztien gotorlekua
lagun ahaztuaren imana
izango ez garena
hotzaren azpiegiturak
bihotzaren tibia eta peronea kraskaturik
denbora eta galgoak

SAKRIFIZIOA

Pakidermoa,
kristalezko mahaia,
gaizkiulertuak,
eskuen indiferentzia,
        haiek.

Desioetako animaliak,
maitasunaren brikolajea,
akorde distortsionatuak,
fereka iragankorrak,
        gu.

DEMENTZIAK

Bizitzan zehar galdu dituen
gauzen maskorrak agertu dira atepean
aingeru gazteen lumak
behinolako erradiografien sinboloak
ukimen ezinezkoak
ertz galduak
udagoieneko txori saldoak
lehen musuaren azidoa
arbeletako ikonografia ulergaitza
limoien irribarreak
brontzezko titareak
telefonoetako kardamua
eskuetako izerdia
iraganaren egitasmoak
ondoan izan ditugunen isiltasuna
min guztien rafagak
dementziaren inertziak
zu... beste dementzia bat

IRAUTEN EZ DUTEN GAUZAK

Irauten ez duten gauzek akitzen zaituzte erabat,
itxaropenaren lengoaiak azaltzen dituztenek,

maitasunaren moldeek, egozentrismoaren collageak,
elementala denaren intraszendentziak,
desagertzen ez jakiteak,

irauten ez duten gauzek, irauten ez jakiteak,
desagertzen jakiten ez duten gauzek,
desagertzen ez jakiteak.

HANKAK

Nire hankak ez dira luzeak, ez naiz altua
eta normalean gerrialdean mina izaten dut
nire hankak behar bezain luzeak ez direlako.
Ez dut inolako malgutasunik, bigunegia naiz
dauzkadan urteak aintzat hartzen baditut.
Begiak inoizkorik arruntenak dira, marroiak,
betile eskaseko betazalek estaltzen dituztenak,
begiratu hurbilekoak.
Esku lodiak ditut, piano zabalegi horretan
soinu dezenterik ateratzeko gauza ez direnak,
trebeziarik gabekoak, baldarrak.
Ilea finegia da, ezin da modako orrazkeran
menderatu,
ez du nahi eta nahiko motz eraman behar dut.
Beti ibiltzen naiz noraezean,
zer egiten dudan azaldu ezinik,
baina egia esan, pozik,
nahi dudana egiten baitut.
Baina benetan kezkatzen nauena
nire hanken tamaina da,
askotan kontrolpean ez edukitzeagatik jausten naiz

eta amak besoetan hartu eta zabura eraman arte ez zait belaunetako min hori kentzen.
Hankak moztu behar ditut.

JESTEM KIM JESTEM

Ordu sailkapen defektuosoa zara
Siddhartako erromesaren jopua zara
Sri Lankako itoa, Alaskako aizkolari besamotza
Hiesak janda dagoen Kongoko Adbilim Yabar gaixoa

Nazien jarraitzaile damutua zara
Arbaso krudelen kromosoma galdua
Gurutzean hil zen gezur apokaliptikoa
heriotzarainoko bitarte ezdeusa

Zarena zara baina
esploratzeko zauri sakonegiak
eta izan zintezkeenak
aztoratzen zaituzte gehiago

APIRIL GUZTIAK BEZALA

Minaren parasito bihurtu zara,
ilunaren zizare beltza aspalditik,
bakardadearen fagozitosia da zure gosea.
Uzkur eta iheslari, araknido guztiena da
zuk munduaren espazioarekin duzun harremana.

Herioarekiko sinbiosi perfektua da zure grina,
gabeziarik, lorpenik gabekoa,
pentsatzeko beste eremurik,
arnasteko beste amodiorik,
urratzeko beste azalik ez baituzu.

Eta dena badoa, urrikalpenik gabe,
apiril guztiak bezala ahuspez
zisneak hegoaldera moduan,
kartzeletako denboraren makinariaren gisan,
ezkutaketa luzean jolastuko bazina lez.

ABIADURA BI

Etxea handiegi gelditu da,
batzuetan geletan galtzen naiz,
denbora gastatzen dut kontu egin gabeko
gauzak begiratzen.

Ama hil zenetik askotan egiten dut.
Nireak ez diren objektuak hartzen ditut
eta iragana bilatzen diet,
curriculuma ezartzen diot bakoitzari.

Badakit betidanik egon direla,
beti ikusi ditudala,
espazio horretako osagai sinpleak ziren.
Ez diet erreparatu.

Aste betean ez naiz denak arakatzeko gai izan,
eta lantzean behin atsedena hartu behar dut,
nekatzen naizelako edota
bihotza irauli egiten zaidalako bat-batean.

Azkena komunean gertatu zait,
buruko eskuila zahar bat hartu eta
nireak ez ziren ile luzeak
bertan korapilaturik ikusi ditudanean.

Kostatu zait kentzea,
eta eskuan nituela
ez nekien
bota behar nituen,
edo nora.

EZ DA BELDURRA

Ezezagunaren ondorioak,
sentsazio berriak, diferenteak,
bizitza paraleloak ez ulertzea,
hurbiltasuna eta urruntasuna era berean.

Jakitea egunean egunekoa dela,
itaunak soberan daudela, azalpenen moduan,
dagoena dagoela sinestea,
pertsonak diren modukoak direla barneratzea.

Segurtasun faltak ematen duen bitartekako
segurtasuna,
desbesarkatzearen ziztada,
ona eta txarra goizero basokada baten edatea,
jarrian jarri esaten zuen batek.

Egia, ordezko berbak dira hauek.
Amaitu da bitartea.
Eguna ezin txarrago hasi da.
Irribarre egiteak beste kolore bat
ematen dio zeru grisari.

ZENBAIT DELITU

Iluntasunak umeak jaten ditu,
nostalgiak gezurrak edaten ditu,
dena begiratzen dut gauzak zabaldu gabe.

Mundua da maitasunaren irakaspena,
maitalerik onenak dimititu egin du,
ez gara berriz lehengoak izango.

Betiko tokietara joaten naiz,
maitatzen zintudaneko espazioak,
eta han isuri egiten naiz.

Egin dut zenbait delitu,
utzidazu nire burua engainatzen,
azken urratsak badakit nondik ekarri nauen.

HUSTASUNA EZEREZA

Hustasuna ez da ezereza
Gaur ere musukatuko zaitut
zure zaporea lortzeke

Inertziak
gibelean hartuko duzun
ostiko baten traza izango du

Urrun joan zara
itzultzen zarenean
ezer ere ez da amaituko

Galdu dudana
tai gabe gogoraraziko dit
ahanzturaren trabesia honek

ODOLA

Konketako zuritasunean
odol-zirkuluaren antzekoa zara
likidoa
distiratsua
izugarria
etenik gabea

LAUSOAREN TRANSPARENTZIA

Zure ilearen gortinaia zabaldu dut
musukatu zure begietako durduza
ferekatu elipsien probabilitateak
arnastu zure arnas etena
margotu mailukien sistemak
estutu zure gorputzaren egitura
altxatu plazeraren matematika
besarkatu erabatekoaren beharra
busti ezpainetako urgentzia
definitu musuen polemika
salbatu misterioaren eroria
azaldu eskuen maitemina
aurkitu berriz altxatzeko zioa

ARTXIPELAGOAK

Zer egin behar duzu argi horrekin,
ispilu erraldoi honetan bizirauten du,
uraren materian korapilatzen den marrazo
zilarrezkoa.

Zer egin behar duzu lur honekin,
harriz apainduriko artxipelago faltsua,
izotzezko anpuluak askatzen dituen soinua.

Zer egin behar duzu altura honekin,
itotzen duen leihorik gabeko espazioa,
besarkatzen saiatzen diren jainkoen eremua.

Zer egin behar duzu bakardade honekin,
zure ezpainetako desanparoarekin,
zure taupaden genealogiarekin.

Zer egin behar duzu orain, tristeziaren formula,
isiltasunaren ingeniaritza deskubritu baldin baduzu
eta amnesiak jazartzen bazaitu.

ZAZPIEHUN ETA ZORTZI

Begiraden kodeak
milimetro neurribakoak
intentsitate baten parametroak
ezin azal daitezkeen betileen kurbadurak
geldi egoteko amnesia
mendien distantzia luzea
egonarria egon eza
euria barruan eta kanpoan
artazien biktimak
koltxoi deserosoak ankerrak
ezin deskriba daitezkeen
figura geometrikoak zure ezpainetan
hoztasunaren deklarazioa
disfuntziorik ez
bakarra eta negargura
berriz bakardadea ozeano baten tamainakoa
zitriko baten bolumenarekin
hustasunaren karga kromatismorik gabe
ilun ilun-argi argi-ilun
bide ezezagunak beldurgarriak oro
desagertutakoen zerrendak

nire izena
artifiziorik gabeko akabantza
loturaren klaustrofobia
urrunegi dauden hodeiertzak
urrunegi dauden begiak
gaur bai bihar ez bitarteka
etxeko mamuen soslaiak
elkarrizketaren sinbologia
eskuen akordioa
energiarekiko miresmena
gerta zitekeenarekiko maitemina
lausoaren putzu afektiboa
zuritasunaren desertua
erromesaren inkognita
sexuaren intentsitatea,
delirioaren intentsitatea
ezerezaren intentsitatea
isiltasun abstraktua
dena galtzearen beldurra
tristezia putak dena izorratzen
limoien aroa

Gora egiteko eta erortzeko momentuak daude, eta horixe da poesiak islatu dezakeen bakarra, bizitza horrelakoa delako. Erortzeko segmentu baten ondoren, osotasuneko beste bat dator. Batzuetan ideal batekin egin izan dut amets; izan ere, gizakion bizitza, sakonki, indarrez, erabakiz biziz gero intentsitate puntu batetik beste intentsitate puntu baterako lekualdaketa bihur liteke. Saint Exupery idazle eta hegazkinlari frantsesak, norbera hausnartzera daraman esamolde bat dauka. Hauxe dio: «Espirituaren bizitza aldizkakoa da». Horrek beste arazo batera garamatza. Gizakia ezin bada etengabeko tentsioan bizi, bere baldintzak hauskortasuna eta, sarritan, porrota direlako, zer egiten da intentsitaterik gabeko momentuetan? Hau da, poemarik ez dagoenean. Mistikoak idortasun-aldi izendatuko lituzkeen mugimenduetan. Zer da egiten duguna? Egiten duguna hauxe da: beste poema bat irakurri, beste musika bat entzun, zuhaitz baten itzalpean egon, zuhaitz hori ekialdeko pentsamenduko basoa balitz bezala.